

telebista ♦ irratia

‘Barre Busa’-ren azken saioa Euskalduna jauregian izango da

Denboraldi honetan 20 mila haur eta guraso igaro da lehiaketa horretatik

Erredakzioa / Donostia

ETB-1 kateak haurren-
tzat egin duen saioa iritsi
da azkenera. Azken
saioa gaur eskainiko
dute Bilboko Euskalduna
jauregitik. Bertan, izan-
go dira Txirri, Mirri eta
Txiribiton, Txan Handia
magoa eta Elvi sabeliztu-
na. Eurodisney-rako
bidaia irabazi dutenek
ere gaur jasoko dute
saria.

IXIAR OREJAK aurkeztu-
tako saioak agur esango
digu gaur. *Barre Busa*
amaitu du bere ibilbidea
eta gaurko saioa izango da
denboraldi honetako azke-
na. Autobus berezi hau
ETBko Miramongo estu-
dioetatik abiatu bazen ere
Euskal Herriko hainbat
herritatik igaro da, bertako
antzokiak jendez goraino
betez. Txan Handia, Elvi
sabeliztuna, eta Txirri,
Mirri eta Txiribiton xele-
brekeriak ikusteko aukera
izan dute Arrasaten, Azkoi-
tian, Iruñean, Barakaldon,
Durangon, Irunen eta
Donostian, besteak beste.
Bilbo izango da helmuga



Barre Busa saioak Euro Disney-rako bi bidaia zozketatu ditu. Argazkian, bidaia irabazi duten bi familiak.

eta bertatik eskainiko dute
gaurko saioa. Orain arte
hogei mila haur eta guraso
baino gehiago gerturatu
dira *Barre Busa* ikustera
eta joan diren herri guztie-
tan sarrerak agortu egin
dira. Gainera, bostehun
bat pertsona igo dira *Barre*
Busaren eszenatokira
Txan Handiari laguntzera
edota Txirri, Mirri eta Txiri-
bitonekin jolastera. Gaur

eszenatokira igoko direnak
Eurodisney-rako bidaia
irabazi dutenak izango
dira: Ainhoa Manso donos-
tiarra eta Ainhoa Eguren
bergararra. Baina ziur
Txan Handiak ere haurren
laguntza beharko duela
bere trikimailurik ikusga-
rriena egiteko, beraz, jende
gehiago ere igoko da esze-
natokira. Horrez gain, Ixiar
Orejak eta Aitor Furunda-

renak abesti bat estreina-
tuko dute, *Hego Txikia* ize-
nekoa. Eta Elvi sabeliztu-
nak Lester tximua izango
du lagun. Magia, musika,
xelebrekeriak eta gauzarik
ikusgarrienak bildu ditu
haur eta gurasoentzat
Barre Busa. Eta arratsal-
deko 15:40ean emango du
ETB-1ek autobus ikusga-
rri honen azken geldial-
dian jazotakoa.

laburrean

‘Zoombados’en San Ferminei buruzko saio berezia emango dute

Zoombados saioko kame-
rak Iruñean izan dira san-
ferminetan eta bertako
giroa bildu dute. Txantxa
ugari egin dituzte eta
horien artean *Irrintzi* eta *El*
Bullicio pamplonés peñeta-
ko kideenak eskainiko
dituzte gaur. Festetan lan
egin behar izan dutenei
omenalditxoak egin diete,
baina zerbitzari, zabor-bil-
tzaile eta ostalariek ere
jasan dituzte talde xeble
honen bromak. *Zoom-*
bados-en saio berezi hau
gaur eskainiko du ETB-2
kateak gaueko 21:45ean.

‘Informe Semanal’ Andujarko mineral erradioaktibo faktoriari buruzko erreportaia izango da

Jaengo Andujarren dagoen
mineral erradiaktibo
faktoriako langileak eta hauen
senideak poluzioagatik gai-
xo egon daitezkeen susmoa
dute sendagileek. TVE-
1eko *Informe Semanal* saio-
ak gai honen ingurukoak
jorratuko ditu gaur. Bestal-
de, PSOEren 35. Biltzarra,
Bigarren Mundu Gerran
holokaustoa jasan zutenei
laguntza emango dien GKE
bati buruzko erreportaia,
eta, modaren munduaren
berri ere emango du saioak.

Juanma Bajo Ulloari elkarrizketa egingo diote Radio Euskadin

Punto sobre la jota irra-
tsaioan Juanma Bajo Ulloa
zine zuzendariarekin hitz
egingo dute. Horrez gain,
Gurutze Gorriko zenbait
kiderekin ere egongo dira.
Gurutze Gorriak Donostian
jarri behar duen zerbitzu
berriaz ariko dira. Bestalde,
7 calle del Trinkete irra-
tsaioan Unai Basurkori
egingo diote elkarrizketa.
Honek belaontzian mun-
duari bira eman nahi dio,
datorren irailean hasi eta
2002. urtean amaitzeko.
Legazpiko Mirandaolari ere
leku egingo diote, baita
asteburuan Lekeition egin-
go den Kale Antzerki jaial-
diari ere.

txoritxoari mokoka

♦ Ines Intxausti

«INES, nire emaztea oso haserre
dabil nirekin. Dirudienaz atzo gaue-
an gu biok elkarrekin oheratzen
ginela egin zuen amets...» esan zidan
lagun batek. «Ez gara inoiz enroila-
tu-eta, mesedez...» erantzun nion.
Eta berak horrela bukatu zuen elka-
rrizketa. «Bai, baina ni irrika bizian
nago...».

Hurrengo egunean bere emazteare-
kin egin nuen topo kalean. Betidanik
lagun handia eta guztiz sinpatikoa
izan da nirekin. Egun hartan, ordea,
ez ninduen agurtu nire ustekabera-
ko! Arratsaldean haren senarrari
deitu nion eta elkartu eta bizpahiru
minutura bere hazia nuen ahoan.
Arrazoia dute ametsak betetzen dire-
la diotenek, noski. Orain emakume
horrekin topo egiten dudak bakoi-

Lagunak eta piztiak

tzean bizpahiru minutu haiek ekar-
tzen dizkit gogora. Eta askoz ere
hobeto ulertzen dut nirekiko dituen
bere txahal-muturrak. Beharrezko-
tzat jotzen dut errealitatearen ez-
logikotasuna bilakatzeko bere joera.
Ezin dut ulertu erotuta ez daudenak
nola lortzen duten bizi ahal izatea. Ni
adibide gisa, ez banengoen nagoen
bezain zor(i)o(n) ez nintzateke hemen
egongo, ezta dirua kobratuta ere!
Lagunak dira mundu honetan
dugun altxor bakarra. Eta altxorra
aurkitzea bezain zaila izaten da
lagun onak izatea. Nik, badut altxor
hori ondoan eta ezin naiz kexatu.
Gizakia oso animalia bihurria da.

Ulertezina. Askotan patetikoa eta
beti peripatetikoa. Inolako oinarri
filosofikorik gabe bizi daiteke. Ogirik
gabe, ordea, ez. Begira, ogia filosofia-
ren gainean jarri behar dugu mate-
ria humanoak aukeratzeko orduan.
Bazen garaia! Kontuz ibili zaitezte
alboan dituzuen lagunen ametsekin.
Hori baita nire gaurko aholkua. Oso
zaila da haien fantasiazko unibertso
onirikoak betetzea. Eta erantzuki-
zun hori dugunoi ez digute bizitza
inon barkatzen. Neverlandeko bizi-
tza askoz ere erreala eta beneta-
koagoa zela uste dut. Eta ni erreala
edo birtuala al naiz lagunen ametsak
direnean? Ai ama. Laister helduko
da azkena. Baina ez gara denok
hemen egongo. Batzuk ametsetan
harrapatuko ditu hondamendiak.